



# BEGOÑA ARREGIREKIN SOLASEAN:

«Une honetan, Europako jaiotze kopuru txikienetako bat da gurea»

MARIASUN LANDA ETXEBESTE

**D**ATUAK alarmagarriak omen dira: Europan ez ezik munduan ere haurrik gutxien sortzen duen herria gara. Euskal Herriko demografiakz eskaturiko adituek diotenez haur gutxi jaiotze honek ondorio latz eta oso garrantzitsuak ekar ditzake gerora begira: ondorio ekonomikoak, soziolinguistikoak edo eta politikoak besteak beste... Diotenez, herri batek irau nahi badu emakume bakoitzak 2,1 haur egin beharko luke, bataz beste, hiltzen den emakumezkoen eta gizonezkoen hutsunea nbetetzeko... Gaur egun, berriz, 1,3 haur bakarrik sortzen ditu emakumeak Euskal Herrian, beraz...

## BEGOÑA ARREGI, DEMOGRAFIAZ ADITUA

Zifra hauek direla eta Begonia Arregi soziologoarengana jo dut galdera zume bezain esanguratsua buruan darabilkidala: «Zergatik jaiotzak hainbeste urritu dira gure artean, oso denbora gutxian?»...

Jakin banekien Donostian finkaturiko bilbotar honek Ingalaterrako Southampton-eko unibertsitatean bi urte zeramatzala, buru belarri, hemengo demografiakz tesis burutzen... Beraz, Donostiara egindako bisitaldi azkar bat aprobetxatuz bere etxera hurbildu naitzaio datu eta eritzi eske, estatistikaren hoztasuna gaingitu nahirik edo. Holakoetan gerta ohi den bezala, paperez, grafikez eta datoez inguraturik aurkitzen dut Begonia. Nire galdera erantzun nahian edo, orrialde bat erakusten dit... Eta nik, demografia-ikasle bihurtuta, ea orri hori esplikaturiko didan eskatzen diot...

## ZENBAKIEK HITZEGITEN DUTENEAN


— Grafika eta datu hauek diotenez, garbi dago mende honen hasieratik berezko jaiotze-tasak murriztuz joan direla poliki-poliki... Guda zibilaren garaian, adibidez, jaitzialdi hori oso nabarmena da, bistakoak dira arrazoin ezagunengatik: hilkortasun handia gizonezko gazteen artean, ezkontza-atzerapenak eta abar... 60 hamarkadan, berriz, Euskadik populazio handia ezagutzen du, inmigrazio eta garapen ekonomikoak zer ikusia izan zutelarik: gazte jende ugari, ezkontza gehiago, jaiotza asko... 1975 urtetik

aurea, ordea, jaiotze kopurua urritzen hasten da nabarmenki eta 1986 urteari dagozkion datuak ia Europako jaiotze kopuru gutxienetakorenak dira: milako 8,7 baka- rrik. Beraz, Europan ematen den jaiotza tasa bajuenetako bat da gurea. Hau da, hamar urtetan jaiotzak erdira jait- si dira eta honek sekulako ondorio ekonomiko eta sozialak ekar ditzazke...

## HAURRIK EZ SORTZEKO ARRAZIOAK

- Eta zeintzuk dira jaiotze beherakada izugarri honen arrazoiak?
- Gure jaiotza tasaren beherakada hori esplikatzeko arrazoiak ugariak dira baina nik bi nagusienak aipatuko dizki- zut: giza-balore aldaketa batetik eta krisi ekonomiko bestetik. 60 hamarkadatik aurrera familiari buruzko ideo- logia aldatuz joan da: kontsumoari garrantzi handia eman ohi zaio, bizitzaren kalitate eta seme-alaben heziketari ere beste modu batetan begiratzen zaie eta hori dena, 75 ur- tetik aurrera nabarmendu eta areagotu egin da, krisi eko- nomikoarengatik biziagotuta, noski! Krisi ekonomiko ho- rrek eragin handia du ezkontzen kopuruan, baita seme-alaben jaiotzetan, eta hemendik alde egin duten hainbat etorkinengan ere...
- Krisi-erlijiosoa ere aipatua izan da askotan halako fenome- nu demografiko baten aurrean... Zer diozu honetaz?
- Bai, gaur egungo Euskal Herrian, beste giza-balore alda- ketekin batera erlijio-baloreen aldaketa bat izan dela uste dut... Hau da, badirudi azken urte hauetan, familiarekiko jokabide pertsonalak gero eta aldenduagotzen joan direla Elizak aldarrikatzen dituen erizpideetatik. Adibidez, garai batean, Elizak aditzera ematen zituen entziklikek garran- tzi edo oihartzun handia bazuten ere, egun, bikotearen jo- kabideak beste kriterio batzuetan finkatuz doazela dirudi: antisorgailuen erabilpena gero eta onartuago dago, seme-alaben kopuru planifikatua, heziketaren kalitatea e.a... Orokorri, Elizaren eritziak eta gizartearenak gero eta aldenduagoak daudela dirudi...

|                                       |      |      |      |      |      |      |      |      |      |      |      |
|---------------------------------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|
| Araba<br>Gipuzkoa<br>Bizkaia<br>Spain | 1908 | 1910 | 1915 | 1920 | 1925 | 1931 | 1935 | 1940 | 1945 | 1950 | 1955 |
|                                       | 34,7 | 31,8 | 31,3 | 30,9 | 31,0 | 26,3 | 22,2 | 18,8 | 21,9 | 15,8 | 19,6 |
|                                       | 31,7 | 30,2 | 28,3 | 38,0 | 27,4 | 23,8 | 20,4 | 17,0 | 20,1 | 17,5 | 21,6 |
|                                       | 34,8 | 32,9 | 30,8 | 30,2 | 30,2 | 25,4 | 19,1 | 15,4 | 18,5 | 18,5 | 22,2 |
|                                       | 34,2 | 32,6 | 30,8 | 28,3 | 29,4 | 27,6 | 25,6 | 24,5 | 23,1 | 20,2 | 20,5 |
| Araba<br>Gipuzkoa<br>Bizkaia<br>Spain | 1960 | 1961 | 1962 | 1963 | 1964 | 1965 | 1966 | 1967 | 1968 | 1969 | 1970 |
|                                       | 24,3 | 22,3 | 22,3 | 22,9 | 24,7 | 25,3 | 25,1 | 25,3 | 21,0 | 20,8 | 20,4 |
|                                       | 26,7 | 23,7 | 24,3 | 24,9 | 25,7 | 25,4 | 24,4 | 23,7 | 21,2 | 21,1 | 21,1 |
|                                       | 28,6 | 23,7 | 24,4 | 25,0 | 25,9 | 25,1 | 24,5 | 24,0 | 21,5 | 20,9 | 20,9 |
|                                       | 21,7 | 21,1 | 21,0 | 21,3 | 22,0 | 21,1 | 20,8 | 20,9 | 20,2 | 20,0 | 19,5 |
| Araba<br>Gipuzkoa<br>Bizkaia<br>Spain | 1971 | 1972 | 1973 | 1974 | 1975 | 1976 | 1977 | 1978 | 1979 | 1980 | 1986 |
|                                       | 20,4 | 20,8 | 20,2 | 19,8 | 19,8 | 18,6 | 18,0 | 18,7 | 16,3 | 16,1 | 10,2 |
|                                       | 20,4 | 20,2 | 19,4 | 18,4 | 17,3 | 17,6 | 18,0 | 15,0 | 15,5 | 11,4 | 9,4  |
|                                       | 21,4 | 20,9 | 20,0 | 19,5 | 18,6 | 18,9 | 18,4 | 16,9 | 12,6 | 13,4 | 9,5  |
|                                       | 19,6 | 19,4 | 19,2 | 19,4 | 18,6 | 18,5 | 18,1 | 17,2 | 14,9 | 15,0 | 9,5  |



## EZKONTZAK ERE MURRIZTEN

- Batzuek diotenez, ezkontzea modan jarri da berriro...
- Bada estatistikek erakusten dutena oso bestelakoa da... 1975 urtetik aurrera, ezkontza-tasak urrituz joan dira, ez-kondugabeko bikoteak poliki-poliki ugalduz joan direlarik. Gazteek ez dute familia bat osatzeko lehen zuten adina presarik eta seme-alabak egiten beranduago hasten dira, haur batetik bestera tarte handiak ematen direlarik... Kasu honetan ere, lehen aipaturiko bi arrazoiekin topo egiten dugu: egungo krisi ekonomikoa eta giza-balore aldaketa. Langabeziak, etxebizitzarik ez izateak edo egun, ozio edo asti libreari ematen zaion garrantziak zer ikusia dute ezkontza beherakada honekin...
- Eta etorkizunerako zer?
- Ez da ahaztu behar herri aurreratu guztiek jasan dituztela aldaketa hauek... Gure berezitasuna zera izan daiteke, oso epe laburrean eman direla, politika natalistik gabe harrrapatu gaituztela. Baina etorkizunera begira ez dut uste giza-joera hauek asko aldatuko direnik, Europa guztian ematen bait dira...

Luzaro jarraitu dugu hizketan Begoña eta biok, datu eta zenbaki hotzak hitz goxo eta didaktikoak bihurtzeko ehundako ahalmena bait du neska langile honek. Laster Southampton-a itzuli, tesiari azken ikutua eman eta Irailean haren defendtsa egin beharko du... Bere lanak oihartzuna izango duelakoan nago. Merezi du.